


## 2022-2023 IKASTURTEA – 6 EDIZIOA

**PROIEKTUEN PLANGINTZA eta DISEINUAN TREBATZEKO FORMAKUNTZA  
TAILERRA PILAR ORONOZ-en ESKUTIK (Zabalketa Elkarteko Hezkuntza Ataleko  
Koordinatzailea):**

**Garapenerako lankidetzako kasu praktiko baten bidez arazozen zuhaitza eta helburuen  
zuhaitzen tresnak landuz kulturartekotasunerantz**



**PRESTATZAILEA:** Pilar Oronoz, Zabalketa Elkarteko Hezkuntza Ataleko Koordinatzailea.

**NORENTZAT:** Kulturarteko Hezkuntzarako Baliabideak eta Estrategia Didaktikoak ikasgaiko ikasleentzat (Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza graduetako 4. Maila; Gasteizeko Hezkuntza eta Kirol Fakultateko Kulturartekotasun minor espezializatzailearen baitan).

**HEZKUNTZA HELBURUA:** Garapen Lankidetzako benetako kasu baten bitartez, ikaslegoa arazo eta helburuen zuhaitzen tresnak ezagutzea, arazozen kausa eta efektuak aztertzen trebatzea eta ondoren, Kulturartekotasunerantz proposamenak eta konponbideak bilatzeko proiektuen diseinuak egiten ikastea, betiere 2030 agenda Jarraituz eta Generoa, Iraunkortasuna eta Giza eskubideak kontutan hartuz.

**DATA:** 2022ko Urriaren 13 eta 19an, goizeko 10.00ak eta 13.00ak bitartean

**HIZKUNTZA:** Euskaraz

**LEKUA:** Hezkuntza eta Kirol Fakultatea, Hezkuntza eraikineko 1.1. gela.

Talde lanak aurrera eraman ahal izateko, arazo eta helburuen zuhaitzak lantzeko egokia den **JAMBOARD aplikazioa** erabiliko da.



**DESKRIPABENA:** Kulturarteko Hezkuntzarako Baliabideak eta Estrategia Didaktikoak ikasgaiaren baitan, ikasleek, kulturartekotasuna sustatzeko proiektu baten plangintza eta diseinua landuko dute beronen esparru logikoan sakonduz. Honela, arazo nagusien identifikazioan, datuen bilaketan, helburuen definizioan eta oro har proiektuaren justifikazioan, diseinuan eta plangintzan trebatuko dira baliabide eta tresna desberdinak praktikara eramanez.

Testuinguru pedagogiko honetan, proposatzen den formakuntza tailer honen bidez, kasu praktikoaren metodologia erabiliko da ikasleak proiektuen plangintzarako tresna eraginkorren erabileran trebatzeko. Aurreko bost urteetako esperientzia positiboa kontutan hartuta, aurten ere Zabalketa

Elkartearekin batera lan egingo dugu, eurek eskuartean duten Garapenerako Lankidetzako benetako kasu praktiko baten gainean; Baliviakoa-koa hain zuzen. Boliviako-ko kasu praktiko hau aintzat hartuta, ikasleak arazoan zehar eta helburuen zehar delako plangintza tresnak aplikatuko dituzte eta euren eraginkortasun didaktikoa aztertuko dute. Hare gehiago, egungo eta etorkizuneko egoeren inguruan hausnartuko dute, kultura desberdinen eta adin desberdinen artean elkarlanean, Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIH) eta Kulturartekotasuna lortzeko proposamen bateratuak egiten saiatzeko.

Formakuntza tailer hau 3 orduko bi saiotan antolaturik dago. Hauetan zehar, ikasleak proiektuen diseinu eta plangintzan trebatuko dira eta bereziki, aipaturiko arazoan zehar eta helburuen zehar nondik norakoak aztertuko dituzte era praktiko batean. Guzti hau Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIH) haintzat hartuz egingo da, era honetan, ikasleek 3 ikuspuntu ezberdin ezagutu, aztertu eta proiektuan zeharka landuko dituztelarik. Hala nola: Generoa, Iraunkortasuna, eta Giza Eskubideak.

Formakuntza tailerraren ondoren, ikasleek ikasitakoa aplikatuko dute eurek identifikaturiko Kulturartekotasuna sustatzeko proiektu baten diseinu eta plangintza burutzeko. ikasleek garatuko duten Kulturartekotasuna sustatzeko proiektu honek, Generoa, Iraunkortasuna, eta Giza Eskubideak aintzat hartuko ditu. Hezkuntza eperientzia berritzaile hau, non Zabalketa Elkartearen formakuntza tailerra abiapuntutzat harturik ikasleak Kulturartekotasuna sustatzeko proposamenak garatzen dituzte, 2017-2018 ikasturtetik burutu da ikasgaiaren baitan Igone Palacios irakaslearen eskutik, emaitza oso positiboak lortuz eta ikasleei teoriatik praktikara joateko baliabide, estrategiak eta esperientziak eskeiniz.

Zabalketa elkartek urteak daramatza Giza Garapen Iraunkorreko proiektuak bultzatzen (<http://zabalketa.org>). Azken hamarkadan euren Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza Programa indartu dute eta Euskadi eta Nafarroako hezkuntza maila desberdinetako hainbat ikaskuntza zentroekin elkarlanean aritu dira (lanbide hezkuntza eta unibertsitatea barne), Hezkuntza Programa Berritzaileak aurrera eramanez eta emaitza oso positiboak lortuz.